

ttipi-ttapa

1991.eko Abuztuak 15

68. zenbakia

dohain banatzen da





EUSKALDUNA JATETXEA

Tfnoa.: 63 03 92
BERA

EKAITZA OSTATUA

Altzate - BERA

HOTZ INDUSTRIALA KAMARAK, BOTILATEGIAK...

ZERBITZU TEKNIKOA

Tfnoa: 631108 / 630898 - BERA
266411 - IRUÑA



KOXXKONTA



Sagardotegia
Erretegia

Ezkontza,
bataio, bileratarako
leku egokia
(200 pertsona)

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

AMAIUR

sukalde eta
bainu
altzariak

Rosa Seminario 13
Tfnoa.: (948) 45 04 00
DONEZTEBE



non - zer

ABUZTUAREKIN batera hainbat herrietako bestak iritsi zaizkigu eta herriz herri izanen ditugun besten egitarau frexkoak eskutartean duzun **TTIPI-TTAPA** honetan aurkituko dituzu. Bertze zenbait herrietakoa ez dugu eskuratzerik izan, baina egon badaude, aukeran!!!

Honetaz gain, **TTIPI-TTAPAK** antolatutako I. Narrazio labur, komiki eta argazki lehiaketan sarituak suertatuko zenbait lan dastatzeko aukera ere izanen duzu; abuztuko ordu hiletan, freskagarri hoberik?

TTIPI-TTAPA egiten dugunon aldetik, gogoratu denboraldi batez bertze alerik ez duzuela jasoko zuen etxeetan, guk ere (merezitako?) atsedenditxo bat hartuko bait dugu. Hurrengo aldizkaria, Irailaren 12an punttual-punttual.

Bertzerik ez. Ongi pasa oporrak eta Uztailean hartu zenituztenak, datorren urtekoak hurbilago dituzuela gogoratu.

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
Tirada: 4.600 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** R. Harribilaga, Oskar Txoperena, P. Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Jon, Arantxa, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Txema Urrotz, J. Igarabide, Antton, Patxi Petrirena, Olhain Elkarrea, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi, Goiko Argazkiak, Mena Argazkiak, Zaldia Argazkiak, Mattari, Fermin Alzuguren, AOT eta Enbido-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza.... **Inprimategia:** Jomisa (Irun)
ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa	088
OSASUN ZENTRUAK	
Elizondo.....	452367 / 580235
Doneztebe	450300
Lesaka.....	637428/637336
Leitza	510248 / 510573
KONTSULTAK	
Arizkun	453039
Gartzain	580451
Oronotz-Mugaire	592024
Ituren	450183
Sunbilla	450283
Goizueta	514067
Igantzi	637755
Arantza	634131
Bera.....	630929 / 630036
Etxalar.....	635105
Urdazubi.....	599130
ANBULATORIOAK	
Irun	630264/621106
OSPITALEAK	
Irungo ospitalea	614600
Nafarroako ospitalea.....	102100
SSko urgentzi zerbitzua	246750
Virgen del Camino erresidentzia	262700
Gurutze Gorria.....	226404
ANBULANTZIAK	
Oitz	450242/450342
DYA	
Lesaka (larrialdiak).....	(943) 464622
Elizondo (larrialdiak).....	171717
FUNERARIA	
Lesaka.....	637404
SUHILTZAILEAK	
Oronotz-Mugaire	592044
GARRAIOAK	
Bidasotarra	630279
Baztanesa	580129
Leitzarar	515018
HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:	
Elizondo	580730
Lesaka	637154
Bera	630261
ABERIAK:	
Iberduero	450335/450336

Botikak

- ▶ **Abuztuaren 15ean**, Arantza, Ituren eta F. Lezaun (Elizondo).
- ▶ **Abuztuaren 17-18an** Lesaka, Doneztebe eta F. Iturralde (Elizondo).
- ▶ **Abuztuaren 24 - 25ean**, Etxalar, Ituren eta F. Lezaun (Elizondo).
- ▶ **Abuztuaren 31 - Irailaren 1ean**, Bera, Sunbilla eta F. Iturralde (Elizondo).
- ▶ **Irailaren 7 - 8an**, Arantza, Doneztebe eta F. Lezaun (Elizondo).

Deialdiak

- ▶ **LESAKA**, Irailaren 6ean, arratsaldeko 5etan, Lesakako Euskara Batzordearen bilera.
- ▶ **IGANTZI**, Irailaren 6ean, arratsaldeko 7etan, Igantziko Euskara Batzordearen bilera.
- ▶ **BERA**, Irailaren 10ean, arratsaldeko 7etan, Berako Euskara Batzordearen bilera.
- ▶ **ARANTZA**, Irailaren 12an, arratsaldeko 5etan, Arantzako Euskara Batzordearen bilera.

Bestak

- ▶ **SARA**, Irailaren 8, 9, 10, 11 eta 12an.
- ▶ **SARA**, Irailaren 8an, AKELARRE-91 ekitaldien barrenean, aperitifa eguerdiko 12etan trikitixarekin animaturik.

Kantaldiak

- ▶ **GOIZUETA**, Abuztuaren 17an, gaueko 12etan Benito Lertxundiren kantaldia eskolako pilotalekuan, Umore-Ona elkarteak antolatuta.

Bota bertsoa



Jon Eskudero

Gaia: Gure ibai eta basoetako zaborra

Neurria: Hamarreko haundia ("Xabier Amurizarena")

Kontatzen hasi behar dudala oso txarra notizia zaborra dugu aspaldi hontan ingurunean hasia hondatzen ari gerade gure osasun eta bizia zikina dago ta itsustua gure alderdi guzia Ama naturak ez dauka behintzat holakorik merezia.

Zuhaitzak botez geratuko da mendi osoa legorra errekan berriz ari zaigula ugarituzten zaborra animalia ta jendearentzat hau izango da gogorra Naturarekin badaukagula ordaindu ezin den zorra alperrik jarri al zuten hemen lau mila duron zigorra.

AGENDA

Bestak

► **AMAIUR**, Abuztuak 14, 15, 16, 17 eta 18an.

► **ARANTZA**, Abuztuak 14, 15, 16, 17 eta 18an.

► **ARESO**, Abuztuak 14, 15, 16, 17 eta 18an.

► **DONAMARIA**, Abuztuak 14, 15, 16, 17 eta 18an.

► **ETXALAR**, Abuztuak 14, 15, 16, 17 eta 18an.

► **EZKURRA**, Abuztuak 14, 15, 16, 17 eta 18an.

► **GOIZUETA**, Abuztuaren 14, 15, 16, 17 eta 18an.

► **ORONOTZ-MUGAIRE**, Abuztuaren 14, 15, 16, 17 eta 18an.

► **ZUBIETA**, Abuztuaren 14, 15, 16, 17 eta 18an.

► **ZUGARRAMURDI**, Abuztuak 14, 15, 16, 17 eta 18an.

Gastronomia

PATXARAN HELATUA

Osagaiak

4 lagunendako:

Esnea (litro eta laurden), glaze azukrea (100 gr.) eta patxarana (litro laurdena).

Lehendabizi, litro eta laurden esnea glaze azukrea-rekin nahasten dira, pixko



Ivan De Pradok emana
KOXKONTA Jatetxea - LESAKA

bat irabiatu edo batituz, baina chantilly punturaino

ailegatu gabe (montatu gabe).

Ondoren, patxaran litro laurdena gehitzen da eta ongi nahasten dira.

Hau, horma kubitoak egiteko erabiltzen den banderjan paratzen da eta kongeladorean sartzen da bi ordu terdiz guttienez, hotza gehiengora edo maximora erregulatu.

Baserriko feria

► ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kilokoa): 5.300pzta. **Zerrigizena** (95-100):196 pzta/kilo **Urdamak**: 80-100 pzta./kilo bizirik.

► BEHIKIA

•Aretze gizenak:
Idixkoak: Pzta/kg. Kanal
Extra.....510
1.koa.....490
2.koa.....450

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal
Extra.....525
1.koa.....500
2.koa.....470

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

Baztango aretzea: 600 pzta/kg. Kanal.

•Behi zaharrak:

Behi nabar gizena: 280 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri

ona: 330 Pzta /Kg. Kanal.


•Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 12.000 eta idixkoak 20.000 Pzta.

Mestizoak: urruxak 26.000 eta idixkoak 33.000 pzta

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



MALDAERREKA S.A.
FUNERARIA ZERBITZUAK

Bittiria karrika -Tfnoa: 637404- LESAKA



SANTAMARIA
Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK

Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

ZUGARRAMURDI

Abuztuak 14, 15, 16, 17 eta 18an

Asteazkena 14:

Eguerdian besta hasiera; **5etan** haur jostetak, tarteka Zugarramurdi, Urdazubi eta Ainhoako haur dantza taldea; **7etan** txokolatada eta pastel txapelketa etxekoandre-entzat; **11etan** piperrada plazan; **12etan** dantzaldia IZANekin.

Ortzeguna 15:

Goizez Meza eta "Begiraleak" dantza taldea; **5etan** Pilotá partidak. Haurrak: Joseba-lker eta Iban-J.Fermin. Haundiak: Intxauspe-Karrikar eta Retegi III-Oiartzabal. Gero, "Begiraleak" taldekoEN dantzak; **Gauetz** dantzaldia IZANekin.

Ortziralea 16:

11etan Animazioa basurde, zakur, miattu, oilar joko eta pottokekin. **4etan** ahate jokoak Ortzadar txarangarekin; **7etan** Txalaparta: Zugarramurdi, Bera, Itsasu, Donostia eta Iruñakoak. **Gauetz** DRINDOTS.

Larunbata 17:

10etan Eskea eta musika; **5,30etan** Euskal jokoak eta Argiñarena, Sorozabal eta Amorena bertsolariak; **Gauetz** DRINDOTS.

Igandea 18:

12etan akordeolariak eta gaiteroak; **2,30etan** zikiro-jatera; **Arratsalde eta gauetz** DRINDOTS taldea

Oharra: Zikiro-jateko txartelak erosteko Herriko Etxeko atean salduko dire Abuztuaren 10 eta 11an, eguerdiko 2etatik 7etarat.



ALTZATENEA JATETXEA

Besta ederrak pasa!!

Tfnoa: 59 91 87 - ZUGARRAMURDI

AKELARREA

Jatetxea – Ostatua

Lapiztegia, Tfnoa: 59 90 94 - ZUGARRAMURDI

ANSALAS OSTATUA

HARATEGIA

JANARIDENDA

Besta ederrak pasa!!

Tfnoa: 59 90 82 - ZUGARRAMURDI



ETXALAR

Abuztuak 14, 15, 16, 17, 18an

Asteazkena 14:

8etan altxaferua; 9,30etan kuadrilen afaria; **Gauz ALMEN** taldea.

Ortzeguna 15:

11etan Meza; ondotik dantzariak; 6etan Miattu eta pottokak; **Gauz** dantzaldia **HAIZE**arekin.

Ortzilara 16:

Goizez mini-kars; 2etan Asau-ttiki Landagain eskolan; arratsaldez mini-kars; **gauz TTURRUTAK**..

Larunbata 17:

11etan herri kirolak; 2etan Asau; **gauz IZOTZ** taldea.

Igandea 18:

Goizez pilota partiduak eta bertsolariak, 2etan Jubilatueendako bazkaria Larraburuan; **Gauz HARITZA**.

XATURETXEA FONDA

Tfnoa.: 63 70 27 **LESAKA**

ITXASO JATETXEA

Menua eta Karta

Ibardingo Gaina - **BERA**

IRUBIDE

**OSTATUA
ERRETEGIA**

Tfnoa.: 63 71 27 **LESAKA**

ARRANO



OSTATUA

Legarrea - **LESAKA**



MUSIKA DENDA

BERA ☎ 631059

- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinua,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA

*Michel
Guereñdiain*

SARA - LAPURDI

B RADIO
BIDASOA **expert**

Kanttonberri 1, Tfnoa: 63 03 77
BERA

**3 urtetarako garantia eta
36 hilabete ordaintzeko.
Nork eskeintzen du gehiago?**

ARANTZA

Abuztuak 14, 15, 16, 17, 18an

Asteazkena 14:

9etan altxaferua eta segidan akordeoiak; **Gauetz** dantzaldia JOKALDIrekin.

Ortzeguna 15:

11etan Meza; ondotik dantzariak eta profesionalen pilota partidua; **6etan** Lesakako akordiolarien kontzertua; **Gauetz** dantzaldia SIRIMIRIrekin.

Ortzilara 16:

11etan Pilota txapelketaren finala; **5etan** Plater Tiraketa Meakan; **Arratsalde eta gauetz** GAUBELA..


Larunbata 17:

12etan afizionatuen partidua; **6etan** Herri Kirolak: Bera-Arantza proba konbinatuak; **7etan** Pailasoak; **8etan** Ala Delta ikustaldia; gero, dantzaldia SIRIMIRIrekin.

Igandea 18:

Goizez Mendi bizikleten ibilaldia, Herri Kirolak, Lizaso-Murua bertsolariak eta Jokin-Azkonobieta trikitilariak; **2etan** Herri Bazkaria bertsolari eta trikitixe-kin; **Gauetz** ARKAITZ taldea.

OSKAR



OSIÑA JANARIDENDA

Besta ederrak pasa itzazue!

Tfnoa: 63 41 88 • ARANTZA



BURLADA JATETXEA

Besta onak pasa!

Goiko Karrika • Tfnoa: 63 40 27 • ARANTZA

MANUEL LANTZ

KONTABILITATEA ETA AHOLKULARITZA FISKALA

Errenta deklarazioak, BEZ edo IVA deklarazioak, Kontabilitateak, e.a.

Eztegara 14, 1. – Tfnoa.: 63 11 08 – BERA

ATERPE jatexea

Mendi ibilaldietarako Mountain bike bizikletak alokatzen ditugu

Tfnoa.: 63 41 79 - ARANTZA

PRIMITIVO OSTATUA

Besta onak pasa!

Goiko Karrika • Tfnoa: 63 40 52 • ARANTZA

MOBLEAK METS

Bidasoa 45, Tfnoa: 63 05 37 - BERA

SUKALDEAK
LOGELAK
EGONGELAK

Deitu eta neurtzera joanen gara.
Konpromisorik gabe!!

TALKO

Idazlea: Angel Garcia

TALKO, *ttipi-ttapa*ren I, Narrazio Labur Lehiaketan lehen saria eskuratu zuen narrazioa da

Ez zen Kolko untzia Amerikara migrariak eramaten zituen lehenengo aldia, baina orduko hartan hamaika osagai berri bildu ziren. Hasteko, bidai haren buelta bestelakoa izan zen, bidai guztien buelta, hain zuzen ere.

Kapitainak eresia zeukan zazpi malamute-lera zakur-kasketaldi batean. Tonkinen, ikaztegia betetzeko atera zituenean, banan banan ferekatu zizkien buruak, eta halaxe Itsas Horiko sei portu gehiagotan ere, egun batean zerua belzteko ikatz nahikoa bagenuela esan zitekeela, eta gauminean eguzkia suspertzeko haina soberatuko.

Ordea hornizioa amaituta gero ez zen zakurreriaz gehiagorik oroit, ezik hilabeteak geroago, zertarako eta fotografiatzeko agindu zuenean, ilusentiko laztasun keinu edo. Fosforoaren argira ere bereiztu behar izan genituen haien arpegietan basatikeria lehenengo ezaugarriak. Haintzat hartu egin ez, guk. Tira.

Zakurrez gain bazen beste piztizar bat bidai hartan endredaturik, sugin edo bat, Jacobo izenekoa. Inter nos, daitekeenera makurtuko bagara, kapitainak malamuteak erosi ez zituelakoan nago; ez, hori ez zetorren bat bere zuhurkeriarekin. Dema zikin batean irabazita edukitzea bai, ordea, eta lera zakurrak kentzea arrazonamendua kentzea baino gehiago izan.

Kontua da halako Jacobok ez zuela gauza onik egiten labeetan. Gainera, erakusten zuen bizarraren jabea ere ez izateko bidea zerman. Eta galtze sail harrigarri hartatik laster pasa zen honako sekretua: Jacobo Errementarien Anaiarteko hutsala -edo memelo, nahiago bada- izana zelakoa. Jakina, errementari gurako guztiak bezalaxe, bakarrik berak maila ezinago apal hura utzi behar izan zuela gaintitu gabe. Badaoakionera, taldekide ohiak Hu Di errementari, forjari eta zerrailaria ezagutu zuen pasaiaren artean, eta baita Huang Ying haren emaztea ere, gizonekoentzako beste inorentzako ez zen untxi hartan. Eta biak salatu egin zituen.

Kolkoan bazegoen, artean, hura bezalako emaitza nork jaso, premiaz gainera, nahiz eta Jacobok berak ere ez jakin zein etekinen atzetik ote zebilen hain zakarki jokatu zuenean. Izan ere, malamuteak arras errabiatuak ziren eta errondatzen bigarren kubiartan barrena. Eta gizakia ere probatua zuten, Zeberos zakur gidariak kapitainari eskua aterea bait zion horzkada batez.

Kapitainak, konturatu nahi izan ginenerako iparraldeko bidea hartua zuen zerri hark Hu Di behartu zuen ate guztiak morroiloztatzer, bata bestearen atzetik, bigarren kubiartako sarreratik hasi eta ahalik eta barruen (beste txinatarren esanetan Hu Dik halaxe egingo zukeen eskatze soilaren aurrean).

Aldi berean, Jacobori Hu Di ohoregarriarekin joateko aukera eskeini zion.

Hu Di ez zen bueltatu. Batzuek haren lan trinkoak zakurrabiaren

pareraino entzun zituztela diote. Besteek Zeberos zela entzundakoa, Hu Di tresneriarekin eta guzti arrasteka zeramala janaldirako. Kapitainak erabaki; Kolkoa utzi eta oinez atzeratu nahi zuen pasaiaren dirua banatuta gero. Guk ezetz, pentsa, tamainako zatiketaren huzkuia ezer gutxirako ailegatuko ziratekeen edonon, ezertarako ere ez Arktiko eta Tartari aldeetan. Eta Kolkoa Katai utzi zuenetik hasia zen ur biltzen, hatz bat, oin bat orduko. Zeberosek eskuhaga guztiak geldiarazi. Nire eritzian, Zeberosek berak ekinen zielako ikara genuen laguntza preziosena.

Jacobo-k

Pasaiak bere ametsa ordaindua zeukan, baina bere patua zor zuen. Zoritxarrez, hau oso dibisa aldakorra dugu gizasemeok eta hantxe ginen, bestela ere, denok nahasita elurtegieta barrena noraezean ibiltzen.

Zazpigarren martxa egunean neuk ezin izan nuen aurrera jarraitu eta bidean geratu nintzen heriotza itxoitera. Nirekin Huang Ying; arestian hain liraina izandakoak ere gabeziei men egin behar zien. Halere goizean hizirik genirauen eta are zazpi goiz gehiagotan ere. Ilunabarero narraz etortzen zitzaidan nire harridura txokora Huang Ying.

Gau batean, gatazka amaituzat ematen genuen guztietan bezala, instantean hartu ninduen loak. Baina aurrekoetan ez bezala erdilo labur eta lainotsu bat nabarmendu zitzaidan behin -ohitzearen eragin logikoaz- gero berriro eta hirugarren aldiz ere, gutxienez. Ez, oihantzean aldaturik erori nintzela esaterik ez dago. Tarteka erratsa somatzen nuen, eta urubiak, eta Huang Ying. Feldrozko kapel zabala buruan eta beste jantzirik gabe ikusi nuen, zegoeneko oin bat etxolaren kanpoan zeukalarik.

Horregatik esan behar, jakinminak zeregin bat baldin badu loan, horrexen poderioz zirikatutako nituela begiak minutuak geroago. Orduan Huang Ying bere kalamuzko batari buruz makurturik zegoen, hatzaparka, hartu ezinik bezala balebil bezala. Aldamenean zituen galtzik jada ez ziren gerrikatzeke modukoak. Maundire bat baldar jantzi Huang Ying inen zen unean erratsa eta urubiak aragotzen zirela bereziki eraso sostengatu nintzen.

Huang Ying-ek

Kapitainak galantki utziko hametan nargabera makaldu zen lurrunen nagusitzeaz batera. Nagusitasun arras makala, bestaldea, hiru itzal bionboan agerri ziren.

-Ur bero extra, irakin berrin lortu dugu, ura, Jacobo, botatzen burutik behera ham zurrin dauden poro horiek dot zabal daitezten.

Murray tenientea zen hala munitza zena, eta hirugarren jizala teniente apain haren maila berberetia zen, baina baita Jacobo bezain ixila ere: kapitainak agindu somekoa, alegia. Anitz hilabete ziren halakorik jarriti gabe.

Jacobok egin zion tenienteari aferaetzeko gonbidazioa; neuk Jacobi aitari ezezik lelukoa ere izatekoa. Neurriz kanpo haziak zitzaizkidan ditak.

-Ene bada, atsegin izango dik saltsa hau- esan nion.

-Nahituk hain nahita- Jacobok inardetsi, baina ez nuen berarekin kaseretzirik, aitzitik, inbera oinak erakutsi nizekion bionboaren partailan projektaturik.

–Baita pindru hauek ere?

Ditiburuak, berriz, laun eta trinko zeuden, niregatik bakarrik ere jada ez nuen nahiago ez izatea. Baina Jacobok azpiratuta zirudien laran harekin.

–Joan hadi –agindu nion– argi zegok ederki aski dakidala jazten nere kabuz.

Hala eta guztiz ere, behin bakarrik ez nintzen kapitainaren jairako jantzi. Horren ordeztatzen bataren epeltasunera itzuli. Gero Kolkoa hartu nuen, uretan utzi nuen. Zer egin? Ukurtu, eskoratu, iraultzeko Kolkoren joerak nolabait zuzendu behar eta zatinezko soineko luze eder hura murgildu nuen baineran.

“Dagoneko ez naiz txinatar, txineskoa naiz, itzala. Kapitainak alferrik argitzen du bere ganbara, azken finean gizon mindua da, edariari emana eta. Galdu zuen emaztea ahazteko edaten omen du, baina hura ere edalea zen. Teniente, Misteriotsu bezain apal lagundu zituen biak, elkarren segida, haien mozkoraldi eta biharamunetan. Nondik hator? Agertzetik. Nor haiz? Hona. Jadedzko erletegitxo bat lepoan, itxura ikaragarria baldartuta edo, larrupekoa bezalakoa. Orain lehenengo kubiartara doa, bera bizidun bakarra eta Kolkoa bere presentziaren gutxieneko muga bailiran. Baina marinelek, esku artean dutena utz dezaketenek lepoko zapiak askatu eta kosk egiten die, tenienteari hotzak ageriz. Eta tenientea karelairen kontra estutzen da, eta itsasoa une batez lautada lehor, arbadoen artzantza estepa bihurtzen da. Bakean dagoela nioke baldin eta noizik behineko aparra lehertzen deneko itzualdi honengatik ez balitz.


Murray-k

Huang Yingek ahalketurik zirudien bestondoarengatik. Ezin ahaztu goizera ailegatuko ez zelakoan presaz ezkonduak ginela eta orduan, bedeinkapen sobera partikular haren jolasgarria agorturik, gaua aurreratu ahala Huang Ying beharraren zentzu baten menezan erortzen zihotan eta agomian sakontzen –pentsa zer den konbentzionalismoa osasunaren bukatzerako fasea izatea–. Tarte hura luzatzen zen bitartean norberak bereganatu genezakeen bestearen ahulezia eta atzera egin genuen erabilitako premiara, eta oraindik atzerago, abandonatu berriak, elkarrengatik aurreratu ginela eta inolako eta baki komunik ez zela.

Neu, erori ere, otsok hurbiltzen aditzean erori egin nintzen. Ino jota, haraino eramana minduen enganamendunak nere burua askarizko bano guzti ez nintzelarik. Enganamendunak dior, Ino jota gurbirik balitz sikara –bainanukerak ezazien duen soil hura, eta nioitxo nabarinezakeen beste bide, bere atzetik hartu zezin eta bere ordu atzeratzeko hainbeste maha erabilia izan arien.

Huang Ying, ezkonduak bere beharrez ezustean liberaturik, eme zegoen. Baita nola ikone, zati beran kapitainaren gero bezala itzultzen ari zela bidean gertatuengana. Galnara, zer amara adarrik zukeen alama eradun bat besterik ez zenak zabalduz gero? Norberaren hizkuntza eta pentsamoldeen gaitetik uhurak bereizten ziren, eta gure bereizle ere baziren izan, hasi orduko Huang Ying desagertu.

Azken uhuraren oihartzunarekin itzultzean lepoko erlekutegi bat zelakaren, haren hainbeste herikide saldu zuen gizonaren bereizgarria hain zuzen. Barruan nere ardurari galdua elkarekin aurkitu genuen, eta pixko bat talke.




BOROBIL, Patxi Petirena Alzuguren
*ttipi-ttapa*ren I. Argazki Lehiaketaren lehen saria

MIKEL PANTAIL


ETA


PATXARAN MAJIKOIA











AKELARRE 91

EGITARUA

Irailak 8, Igandea:

Saran 12etan aperitifa trikitilariak alaitua.

Irailak 14, Larunbata:

Etxalarren, arratseko 10etan herri afaria. Afalondoan, Trikitilariak, bertsolariak eta Martikorena abeslaria.

12etan, IZAN taldearekin berbena.

Irailak 15, Igandea:

Ibilaldia Larunera. Eguerdian, ton-torrean bazkaria eta trikitixak.

Ateraldiak Sara eta Beratik.

MANOLO TABERNA

Edari Banatzailea

Errefreskoak, Ura,
Ardoak, Likorrak,
Txanpaina

Tfnoa: 63 10 27 - BERA

Beatriz Lurrindenda

Garantia osoko produktuak
aurkituko dituzu

Perfumeak, Kosmetikoak, Bitxiak, Poltsok, Oparitzeko artikulua

Santiago 53, Tfnoa: 58 02 83 - ELIZONDO

Nerea Oinetakoak
San Miguel 2, DONEZTEBE

SU BAZTERRA

Idazlea: Gotzone Leonis

SU BAZTERRA, *ttipi-ttapa*ren I, Narrazio Labur Lehiaketan aipamen berezia eskuratu zuen narrazioa da

Hiri erraietan barne zihoan; Venezia horditutako urbide nahasien legez, "eropen" huts, hiri beltz erraldoi-erraietan barrena. Amara, Amara, San Martin, aurrera-aurrera, orain ezkerretara, ez ba, pausoak arin, -andrea mesedez!, urratsak arin, -andrea mesedez, zatoz!, bihotza urduri, esku artean, ahoan aterear daukala...

Azkenik, bortura daraman txalupa ikustatzen du; salbatuko duen trenaren geltokia, urrunean begitandu zaio. Ibaian bestalde besterik ez!

Eta gurutzatu egiten du; iadanik, tiro, polizi eta siren hotsak urrunean gelditzen dira. Geltokira sartu eta antzematen duen leuntasun epel fereka hura bizi artean gogoan izango duela, iruditzen zaio. Orain, tren txartel saltzaileak leihatil tipi zahar hura ireki dezan besterik ez zaio gelditzen.

Harrigarria da. Bere eserlekuaren parekoan, alderrai gizajo bat une iheskor ankerreko alkoholak damaion berotasun azpian, noiz-behinka burua batetik bestera mugitzen duelarik, lo hartu ezinik dabil: lokamutsak batetik bestera, nonbait.

Eta orduan, Euskal-Herria utzi behar duenekoaz konturatzen da: "la temida Euskadi"-tik berriro etxera doa eta salbu eta bizirik.

Kazetaritza ikastera etorri zeneko hartaz oroitzen da; zeharo beste garai haietan, ur larriak, beldurraz kikildurik zetorren: "-tú estás loca!" bere lagunen adierazpenei jaramonik egiteke, kazetaritzaren grinak erabat harturik, hura ikasteko zemaleten aukera bakarra probetxatzen zihoan. Kosta ala kosta, kazetari izango zen. Aldi hartan ere, bere bidaiari geltoki hartan hasi zuen:

Patxi, fakultateko mutil gazteaz maitemindu eta berarekin hasiko zuen bidaiarekiko sarrerari, ateak, hantxe ireki zizkion.

Kazetaritzako lehen eguna. Betaurrekodun ile urdin hura, bepuru tantatsudun haren: "*las ciencias de la información constituyen hoy en día...*" eta Patxiren itsas-begi haien soera: halako mirespen, halako harridura: "¿Qué hace una chica como tú en un sitio como éste?" -ohizko itauna egingo bailion. Honela, hilabeteak igaro ziren eta astearte batean, bere bizitzeko lehen zio bilakatuko zena ezagutu zuen. Aurkezpen simple bat izan zen, inolako lilurapen mundutik at, ia urruti, gelditzen zena; baina batetik hau bestetik hura, halako batean, sukalde, gela bi, bai komun zantar bateko 5gn piso batera bizitzera zihoan. Moja "haur zaintzaile" haien egoitza hura laga eta "bere" mutilarekin bizitzera zihoan. Amak jakin zuenean, ia hil egin zuen, baina horretarako ere, kilometro zenbaitzu egin behar eta tira, aurrera! (Ireneri ezpainetan halako irribarre bat loratzen zaio: gaztediaren ohizko setatitasuna, du pentsatzen).

Gehienik, Patxiren lagunen lekuz kanporatzea pairatu behar zuen. Halako "ez duk hemengo eta utz ezak" bat. Bere onetik atera erazten zuen erdi-onarpen bat. Patxiri bost axola zirudienez, baina bere kasua ez zen bera. Patxi bestalde, beti edo ia beti, borroka ez baizik eta borroka laguntzaile haien gisa ziharduen: ez oso sartu,

baina eskatzen zitzaionean, behar zen lekuan azaltzen zen horietako bat legez.

Berak, aitzitik, kide ez onespenerari halako mendeku erantzun bat emanaz, laguntza ukatu eta manifestaldietan publiko tartean, beste edozein sorgokari gisa jokatzeko airean geldituriko koadro baten barren irudiek bezain ezingabe, ezin mugi. Apika, lagunek ez zioten irioiz halako hura barkatuko: izan ere, "tierra del sol" delako "Fuerzas de órden público" iturri jario eten ezinaren lurralde hartakoa bait zen.

Baina, Iraileko 6 hura, zeharo bestelakoa, infernu bat izan zen. Nork zion berari ba, bere irkaitz arrazoi huts, Patxi, komisaldegira, gerora azkenik atxilopean sartzeko hartuko zutela esango?

Goiz hartan, ez daki zein preso hartu zutela (ia betiko leloa) beste horrenbesteraino deialdi eta honen atarramenduko manifestaldia ospatuko zen, eta Patxi beti legez, bere laguntza kidetasun gaineko hura, erakutsiko zuen; baina hortik, ia usarioz inolako kezkarik edo izatekotan gutxi sortzen zion hartatik, ostean agitutako gertakarietara, zuritik beltzara halako bide bi lerratzen ziren.

Kalera jalgi eta berehala, giro arraro, urduri, gorri ezinegon bat sumatu zuen: indar berdineko bi mamu eskerga elkarri oldartu, erasotzeaz daudela sortutako tentsio ixilpeko edo entzutetsu bat; bihotzera, barnera, zerbait bidali eta aurreratzen duena.

Eta iadanik alde zaharrean, paperezko txartelez estaliriko mamu beltza zekusan: heia gora ekinen pean aurrera zihoala; bestaldean ere, kristal txartelez estaliriko mamu beltza, ilunpe labainketara zailduriko, sasipetik itendako sugandila bezain ikarati, ixilpean, baina odolak ukabilak hestu, hertsu, askatasun txoria ito nahian.

Honela, bi mamuak ozar aurrera. Irene, hartako hartan, hotzikarak erabat menderaturik zirauen: hotsik sortzeko gauza ere ez zen. Mamu bi aurrez aurre: beltza ezeingo mugaketarik izateke, hiltzeko, erahiltzeko prest; eta okerrena, hilgarriak, bere.

Ez zekien zehatz mehatz noiz, baina tiroak hasi egin ziren. Bizi eztanda, garraisi oihua eta lasterraldia; mamu zuriaren lasterraldia.

Bera han: mututu, beldurrak bahiturik; eta tiroak, eta tiroak, eta tiroak...


Etxera deitu egin zuten:

–Irene? –Sì?

Lau ordu haietan izandako peku guzti haiek, egia bihurtu zitzaizkion: kartzelara, Patxi bisitatzerara joango zen. Telefonoa eskegi eta, ereti larri hartan erabat itsuturik ere, kotxe giltzak kausitzen saiatu zen. Txoratutako txori mendrena bezain babesgabe bere burua idoro zuen hartan, eskeinitako esku baten alde, edozer eman izanen luke; edozer!

Itsu zegoen, erabat itsu: atea irekita ere utzi zuela uste.

Eguerdiko argi hura erahile zitzaion. Horratio, komisaldegira eta



gero jarraian, ekidingaitza, betiko pauso, iraganbide antza, kartzeletara jo zuen. Kartzeletara bai, espetxe hari halako batasun bat antzematea ezinezkoa erizten bait zion: gizon bakoitza mundu bat zen. Erotutako mundu bat, izuak atxilotutako mundu bat, aihur mundu bat...

Urrats azken, begi berde mundu hartara ailegatu zen. Patxi, ekurugaitz, ikusi zuenean, lasaitu egin zen. Haur irribarre herabeti antzeko bat ere zegion: halako: ikusi al duk?, azkenean ni ere, hementxe niagok.

Honela, erdi aroko dorre giltzazain hark, atea ireki egin zien, eta usoa kafoka barne, askatasun eske sartu egin zen. Biak besarkada luze batean, Irene negar batean lehertu egin zen: zofin samina, oinaze inkesa, artega, beregaz deus ez zekielako egonari zela iluna.

Patxi berehala, inoiz iguriko ez zuen "ñenes que salir del país" hura jaurtiki zion (jakina, berak "País" gisa ere, Euskal esparru hura mugatzen zuen): bestela, eta hemen egoera zelaitu ezean, edozein egunetan bere semea izango zena, etxera, hilk "itzuliko" zitzaion:

—Háblale de mi país, eh!—(Odol herri honekiko izualde sekulakoa ostendu, deuseztu zezan ba, ez al zion eskatzen?)

Gainera, ilkitzean, ikustaldi bat egitera joango zitzaizela esan zion eta orduan, nahiz eta une hartan orori mingarri zeritzon, beste era batera ikusiko zueneko ez ere, konbentzitu zuen.

Eta orain, geltoki hartan zegoen!—euskal oihu amaturu haren bere barne izpi sortua, lekore, atzerria zeramala. Azken ikustaldi hartaz geroztik negarari ere, sarritan emana zitzaion baina berde lausoera hark zuen oreka ihaltzen, sinestezina zen.

Gutxira, amarenean agertuko zen eta hasieran, behialako ezer erdietsi ez zuen onulan porrot egin hari zail gertatu arren, azkenik ulertu egingo zuen.

Bera, askatasun apur bati onatuko zitzaion: begi berde haiantzako askatasun xerka zihuan. Ordu erdi batera edo, irena ailegatu egingo zen eta Euskal-Herria, eguzki galdape erre hartan geratuko zen: hiri, herri, mendi, soro, zelaia, itsaso, baita espetxe hura ere: mutu ez, ordea.

GOIZUETA

Abuztuak 10, 11, 14, 15, 16, 17, 18, 19an

Larunbata 10:

Haurren toka eta. xake txapelketaren finalak. **5,30etan** umeen sokatira; ondotik jokoak, txokolatada eta dantzari lehiaketa.

Igandea 11:

8etan diana; **8,30etan** entzerru txikia; **10etan** meza; **12,30etan** pelota partidoak; **5etan** umeentzat xexenak; ondotik Udalak umeei eskienitako merienda; **7,30etan** bertsolari gazteen saioa. Ondoren, trikitalari gazteen I. txapelketa.

Azteazkena 14:

12etan Jaien lehendabiziko etxaferoa; **5etan** futbito. **8,30etan** Umore- Ona peñaren kalejira. **12,30etan** gau-pasa GAURKO BERRI-rekin eta kalejira Umore Ona peñarekin.

Osteguna 15:

7etan diana; **8etan** entzerrua. **10,30etan** meza nagusia eta prozesioa. Ondoren dantzariak eta bonba japonesak. **1etan** pilota partidua: Lujanbio-Beloki, Atano XII- Atano XIII. **6etan** zezenak. **7,30etan** Errenderiko Ereintza taldearen emanaldia eta kalejira; **10etan**, su artificalak; **12etan** dantzaldia TRAKETekin



URRUTINEA OSTATUA

Festa zoriontsuak pasa!!

Kale Nagusia, Tfnoa: 51 40 62 – GOIZUETA

GOIZ ARGI TABERNA

Festa zoriontsuak opa dizkizuegu

Tfnoa: 51 40 61 – GOIZUETA

MARITXU TABERNA

Festak ongi pasa

Nagusia z/g, Tfnoa: 514064 – GOIZUETA

HUZI JATETXEA

Ongi pasa festetan!

Kale Nagusia, Tfnoa: 51 40 39 – GOIZUETA

ARROZENA HARATEGIA

Herriko Plaza, Tfnoa: 514056 – GOIZUETA

GURE TXOKO TABERNA

Festa on batzuk pasa

Herriko Plaza, Tfnoa: 514097 – GOIZUETA

Ostirala 16:

12etan pilota partidua. Salaberria- Apezetxea, Apezetxea-Salaberria. **6etan** zezenak. Arratsalde eta gauzez IZADI.

Larunbata 17:

10etan Plater tiraketa. **12etan** pilota partidua. Lujanbio-Balerdi Lejardi-Azkarate. **6etan** zezenak. Ondoren Donostiako Trebeska dantza taldea. Ondoren Umore Onarekin kalejira. **Gaueko 12etan** BENITO LERTXUNDIren kantaldia. Ondoren, gaupasa ARKAITZekin.

IGANDEA 18:

Ezkonduta eta Umore Ona peñaren eguna **7etan** Tolosako dultzaineroekin diana. **8etan** entzerrua. **12etan** gazteen pilota partidua. Ondoren Goizueta-Aranoren aurka. **3etan** Umore ona taldekoen bazkaria. **5ak** aldera peña bere txarangarekin kalez kale ibiliko da. **7etan** zezenak eta peñakoen berendua plazan. Arratsalde eta gauzez GAUBELA. eta ondoren peñarekin kalejira egunero bezala.

Astelehena 19:

Bakailu jate eguna

5etan "pista libre" haurrentzat: moto, karts, zezen mekanikoa eta abar. **8etan** GAUBELA taldea. Ondoren, Lizaso eta Murua bertsolarien saioa. **10etan** bakailu jatea. Ondoren GAUBELA.



UMORE ONA ELKARTEA



Festa ederrak pasa!!
GOIZUETA

ANSA JANARIDENDA

Festa ederrak pasa!

Tfnoa: 51 40 54

GOIZUETA

MADERAS TOMASENA

GARRAIOAK

Tfnoa: 51 40 12 - **GOIZUETA**

Deñe

LENTZERIA

MERTZERIA

Tfnoa.: 62 75 14

Behoko Plaza 8, LESAKA

**OSKORRI
LIBURUDENDA**

Petrinea Tfnoa.: 592245

ORONOTZ-MUGAIRE

ARESO

Abuztuak 14, 15, 16, 17 eta 18an

Abuztuak 14: 6etan txupinazoa; 8etan mus txapelketa; 10,30etan gazte-afaria eta 12etan Akordiona

Abuztuak 15: 11etan Meza; 1etan pilotari afizionatuak; 5etan xexenak umeentzat. 7etan aizkolariak; dantzaldia JOSELU ANAIAKekin

Abuztuak 16: Haurraren eguna

Goizean jokoak; 5etan plater tiraketa eta xexenak umeentzat; 7etan txokolatada; 8etan mus txapelketa finala; dantzaldia: EGAN.

Abuztuak 17: 10etan Kross Herrikoia. 6,30etan aizkolariak eta Dantzari txapelketa (arin-arin eta fandango); dantzaldia: BRIES.

Abuztuak 18: 12etan bertsolariak. 2etan Herri bazkaria; 7etan joteroak "Los pamplonicas" GAUEROrekin dantzaldia; 3etan zezenak egunero bezala.



Masaia eta bizkortze ariketak

Txomin Irazoki (Fisioterapeuta)

Astelehenetik ortziralera, 15,30etatik 19,30etara

Eztegara 24, Tfnoa: 63 13 91 - **BERA**

LUR APAL MEKANOTERAPIA ZENTROA

BIZKARRA
ARTRITISA
ZAINAK
STRESA

Plaza Zaharra 7, Tfnoa:
637011 LESAKA

ZALAIN
KARROZERIAK
TXAPA ETA PINTURA
Tfnoa: 63 01 88 - BERA



Lore eta landareak
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESACA

**Esquisaroi
jatetxea**

Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013
ELIZONDO

Aditu Baten Ziurtasuna

LAGUN AROn honako hauetan gara adituak:

- Industri Aseguru Konbinatuan
- Bizitza Aseguruetan
- Eraikuntzako Arrisku Orotariko Aseguruan
- Etxe Aseguru Integralean
- Komertzio Aseguru Integralean

LAGUN ARO ASEGURUAK. Konpainia on baten balioa.

LAGUN ARO
SEGUROS ASEGURUAK

Carlos III.a Etorbidea, 14
Tfnoa.: 22 56 66 Fax: 22 10 49
31002 IRUÑA-PAMPLONA

Ostatua, San Juan z/g
Tfnoa.: 61 51 19
31747 SALDIAS

Juan Jose Urrutia Juanenea
(Ajentea)

AMAIUR

Asteazkena 14: 6etan txupinazoa; 9,30etan Baztan Zopak; dantzaldia.

Ortzeguna 15: Goizean Meza Nagusia eta Mutil Dantzak; **arratsaldez** artzain eta xakurren desfilea eta XVI. sariketa; **7etan** Nafarroako IV. Sokatira (640kg); **11etan** sokamuturra; dantzaldia ANKERekin.

Ortzirala 16: Haurren eguna **Arratsaldez** Haur jokoak, Pailazoak eta txokolatada; **8etan** mus txapelketa; **11etan** sokamuturra; dantzaldia ANKER.

Larunbata 17: **9etan** Bertsolariak **11etan** sokamuturra, gaupasa GAUBELAREkin.

Igandea 18: **12etan** Pelotariak. **6etan** Nafarroako VII. Txinga txapelketa, ondotik arpanari lehiaketa; dantzaldia JOSELU ANAIK.

Astelehena 19: **12etan** Musa; **2,30etan** Zikiro Jatea; dantzaldia..



KARMELE

Etxetik mugitu gabe ardoa erosi nahi baduzu

- Botilatu eta botilatu gabea
- Markako ardoa...

deitu 45 32 66 Tfnoa.

AZPILKUETA

ERRATZU OKINDEGIA

zure eguneroko ogia

453168 - ERRATZU

FZ
FOTO ZALDUA

Argazkiak, Bideoa, Markoak

Zure argazkiak berehala errebeltatuak eta gainera profesionalen kalitate eta kolorearekin
KONPARA ITZAZU!!

Elizondo Tf: 58 04 91

Doneztebe Tf: 45 03 64

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu

Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan

AMAIUR Tfnoa: 45 30 60

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

Abuztuan, merkealdiak arropetan

ZALAIN JATETXEA

EGUNEKO MENUA ETA KARTA

ZALAIN AUZOA, TFNOA: 63 11 06

BERA

ZIZKA OSTATUA

MARTXA ETA MOZKOR SAL TSA

ALTZATE 28 - BERA



Ezkontzetako erreportaiak argazkiak eta bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40
ELIZONDO

Eta orain, zure koloretako argazkiak
ORDU BATEZ ERREBELATUAK
ditugu

ZUNZARREN

Gestoria

➤ Allianz Ras Aseguruak

➤ Bidai Agentzia

Tfnoa: 45 22 93

Amair Gaztelua 2

31700 ELIZONDO

ZUBIETA

Abuztuak 14, 15, 16, 17, 18an

Asteazkena 14:

Gaueko 12,30etan arbola altxatzea; dantzaldia **MO-DESTO**.

Ortzeguna 15:

11etan Meza Nagusia; ondolik herriko ioaldunak; **1etan** aizkora apostua: Mindegia eta J.K. Mindegia beste biren kontra. **Dantzaldia GAU-PASA** taldearekin.

Ortzirala 16:

11,30etan mus txapelketa; **6etan** asto karrera; dantzaldia **JOXELU ANAIAK**.

Larunbata 17:

11etan, haurrendako Biatlon txapelketa. **5etan**, haur jokoak; **Gauez** dantzaldia **IZAN**.

Igandea 18:

1etan Aizkora Apostua, herriko bi "kinto" beste biren kontra; **4,30etan** pilota partidook; **6etan** Arizkungo dantzariak; dantzaldia **IZANekin**.



KARMELE



ANTTON

EZKURRA

Abuztuak 15, 16, 17, 18an

Ortzeguna 15:

11etan Meza Nagusia; ondolik aizkol apostua Mindegia-Arretxea; **6etan** Pilota partidook. **Dantzaldia BASAJAUN** taldearekin.

Ortzirala 16:

12etan Umeen jokoak; **5etan** plater tiraketa; **6etan** Umeen jokoak; ondoren dantzaldia.

Larunbata 17:

12etan Mus txapelketa. **6etan**, aizkol apostua: Etxeberria (Sunbilla)-Loiarte (Zubieta); **Gauez** dantzaldia.

Igandea 18:

Ezkurrako herriak Bengoetxea III.ari omenaldia
9etan argisoinua; **10,30etan** Meza txistulari eta dantzariekin; **11,30etan** pilota partidook: Bengoetxea III.a-Iparra, Beristain-Tapiaren kontra; **2,30etan** Herri Bazkaria eta arratsalde-gauez dantzaldia.

ORMAETXEA OKINDEGI-OSTATUA

Besta onak pasa!

Tfnoa: 45 01 69 • ZUBIETA

ERRANDONEA OSTATUA

Besta zoriontsuak pasa itzazue!

Tfnoa: 45 02 16 • ZUBIETA



ARROPA ETA OPARI DENDA

Tfnoa: 451540
Mercaderes 9
DONEZTEBE



Zure gustoko arropak hementxe

**San Migel auzoa 27,
45 08 83 - DONEZTEBE**

BEATRIZ

ILEAPAINDEGIA

San Migel, 450922 - DONEZTEBE

- Solarium-a
- Ileapaindegirako produktuen salmenta
- Ordua eskatu

TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa.: 45 04 91

Etxebizitzak

• **Beran** ongi moldatu-tako baserria saltzen dut. 33.000 m² terrenoa eta 100 m² tako terraza. Karretera generaletik 200 metrotara. Tfnoa: 631348

Lana

• **OHO-EGB** klaseak emanen nituzke udan. Tfnoa: 45 04 39

• **Edozein** herriko festetan lan eginen nuke, tabernetan, jatetxetan. Deitu 510 285 telefonora.

• **Administraritzza** edota euskara klaseak emanen nituzke. FPII eta Hizkuntza Eskolako tituloak ditut. Tfnoa: 637948.

• **Udako** bestetan, ostatueta lan eginen nuke. Tfnoa: 637 052. Lesaka.

• **Euskaraz eta frantsesez** dakien neska bat eskeintzen da jatetxe edo denda batean lan egiteko. Eskerrik asko. Tfnoa: 63 74 10. (Sara).

• **Lesakako** bi neska gara eta gustatuko litzai-guke herriko bestetako ostatueta lan egitea. Tfnoa:

637872 (1etik 3ak arte).

Denetarik

• **Gaia** belardenda tras-pasatu nahi dugu. Dagoen bezala hartzen baduzu, ganga bat da. Martxan dago bi urtez. Nik atenditu ezin dudalako uzten dut baina lanpostu polita da. Animo. Tfnoa: 63 74 10.

• **Ekipoak** alokatzen dira udalentsat, bertsolarientzat, elkarteentzat, mitinetarako, etabar. Laia musika dendara deitzea bertzerik ez duzu. 631059.

Salerosketak

• **3 urtetako** eta adarrik gabeko ahari bat salgai 25.000 pezetetan. Tfnoak: 61 07 94 edo 51 03 91.

• **Ford Fiesta** NA-5459-V egoera onean salgai. 3 urte eta 58.000 kilometroekin. Tfnoa: 627542 (Luis Mari).

• **Sukalde** mixtoa salgai, dexente ongi dagoena. Tfnoa: 510059.

• **R-5 GTL** NA-W matrikulakoa salduko nuke. 50.000 kilometro ditu eta hagitz egoera onean dago.

Tfnoa: 63 72 36.

• **1.000** teila plana eta "ordeñadora andadora" salgai. Hagitz merke. Tfnoa: 58 10 23.

• **Artzai** zakurkumeak salgai. Tfnoa: 637 410.

• **Karrera** bizikleta txikia (Razes) salgai. Tfnoa: 637 317.

• **Anplifikadorea** salgai kitarrantentzat -100 watio- Tfnoa: 637852 (Javier).

• **Kanping denda** familiarra salgai (bosten-tzako). Tfnoa: 630317.

• **Bi bizikleta** salgai. Bat paseokoa eta bertzea karrerakoa. Merkeak eta egoera onean daudenak. Deitu 637837 tfnora.

• **Idazmakina** berria salgai. Olivetti Estudio 46 markakoa, 29.000 pztatan. Tfnoa: 58 05 70.

• **Kitarra** akustikoa espanyolaren ordeztatuko nuke. Tfnoa: 451565

Harremanak

• **Arraiozko** mutil ederrinari: Nere bihotzeko opiltxo goxoa. Ezagutu zintudanetik oso maite-minduta nago. Muxu haundi bat. Nor ote da? Zuk

dakizun bat. Agur Manitas.

• **Oieregiko** Itziar eta Izaskunentzat; zuen artean ze gustora egoten den. Pupas.

• **Lesakako** Aitor Mitxelenarentzat: oso mutiko majua eta polita zara eta zurekin irten nahi nuke. Muxu bat sudur puntan. Irain eskolako L.U.

• **Elizondoko** karte-roarentzat: Patxi Apezetxea. Besarkada bat. Zuzarreko bi lagunak.

• **Leitzako** Joxeperi: Nahiz eta zu gutxi irten nahikoa da oso ona zaude-la konturatzeko. Segi beti bezain jator. Leitzar bat.

• **Igantzik** Pitxurri. Zu zara nere bihotzeko azukre koxkorra, bihotzeko maitia. Muxu haundi bat. O.K.

• **Etxalarko** Agurne eta Goretteri. Inguruko neska majenak zarete, ea noiz ikusten dugun elkar eta enroiatzen garen. Beratarrek.

• **Iturengo** Davidentzat. Oso mutiko jatorra zara. Ea etortzen zaren egunen batean Doneztebera. Gure abestiaz oroitzen al zara? "Miro tu pelo". Bi musu.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZIETA IGORRIGURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua:

.....

.....

.....

.....

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZÜ, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

OKANE

**Haragi, janari-izoztu
enbutido, jogurt...**

SEKULAKO AUKERA
PREZIO ETA
KALITATEAN

Kanttonberri 4,
Tfnoa: 63 00 18
BERA

SAROBE
okindegia



SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - **BERA**



**Loradenda, bitxikeriak,
opariak, eskulangintza**

Bittiria, Tfnoa: 62 75 42
LESAKA



**AFRO
REGGAE
ZOUK**

ZAGIT

Taberna. JARAUTA, 98.
IRUÑEA. Tfnoa: 22 14 40

INFORMAZIOA:

- Nominak
- Aseguro Sozialak
- Lan-kontratu bonifikatuak
- Enpresa berrien sortzea
- Diru-laguntzak
- Errenta Deklarazioak
- Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non:** MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
- Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



**«ZALDUBI»
SUKALDE
MOBLEAK**

*Altzari fabrikazioa eta
muntaia*

Zaldubia Poligonoa, Tfnoa: 45 20 77
IRURITA - BAZTAN

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barrenean edo ate ondoan eta buruko mine maten badazue hek ikusteak, abiso emanzazue Iruritako telefono hontara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.



OSKAR TXOPERENA

Besta Onak opa dizkizuegu



NAFARROAKO AURREZKI KUTXA